

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

R14/2016 Ebazpena

95/2011 Espedientea

Vitoria-Gasteiz, 2016ko ekainaren 20a

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako hau

ERABAKI DUTE

Gaia: Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Bizkaiko Foru Aldundiaren aurka planteatutako eskumen-gatazka, ENTITATEA (IFZ: ----) eratu zenetik (1965eko uztailaren 10etik) egoitza soziala eta fiskala Madrilerara aldatzea erabaki zuen arte (2009ko abenduaren 18ra arte) entitatearen zerga-egoitzari buruz sortutako desadostasuna ebazteko. Gatazka 95/2011 espediente-zenbakiarekin izapidetu da Arbitraje Batzorde honetan, eta Gabriel Casado Ollero jauna izan da txostengilea.

I. AURREKARIAK

1.- ZAEA Zerga Administrazioko Estatu Agentziako zuzendari nagusiak, 2011ko abuztuaren 29an egin eta Arbitraje Batzorde honetan hilaren 31n erregistratutako idazki baten bidez, eskumen-gatazka bat jarri zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren aurka (aurrerantzean, BFA), ENTITATEAREN zerga-egoitzaren kokapenarekin lotuta sortutako desadostasuna ebazteko helburuarekin.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

Hark azaldutako aurrekariak eta zuzenbideko oinarriak aintzat hartuta, ZAEAk zera eskatu zion Arbitraje Batzordeari, ENTITATEAK 1965eko uztailaren 10etik (eratze-eguna) 2009ko abenduaren 18ra arte -egoitza soziala eta fiskala Madrilgo 2. EGOITZARA aldatzea erabaki zuen eguna- zerga-egoitza Bizkaian izan duela deklara dezala; Bilboko 1. EGOITZAN izan duela, hain zuzen ere.

2.- Gatazka planteatu aurretik, administrazio interesdunek eta entitateak berak honako hau egin zuten:

a) Bizkaiko Foru Aldundiak ENTITATEAREN zerga-egoitza egiaztatzeko prozedura abiarazi zuen. Prozedura hori 2006ko apirilaren 11n amaitu zen, eta ZAEAk EAEn duen Ordezkaritza Bereziak entitatearen egoitza Bilboko 1. EGOITZATIK Madrilgo 3. EGOITZARA aldatzeko proposamena igorri zuen, Ekonomia Itunaren 43. artikuluko bederatzigarren zenbakian xedatutakoari jarraikiz. Hori guztia Bizkaiko Foru Ogasuneko Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuak egindako 2006ko martxoaren 28ko txostenarekin bat etorritik, bertan honako alderdi hauek jasotzen baitira:

- ENTITATEA 1965eko uztailaren 10ean Bilbon emandako eskritura publiko bidez eratu zen, eta Bilboko 1. EGOITZAN ezarri zen haren egoitza soziala eta fiskala.
- Estatutu sozialekin bat etorritik, entitatea hamabi kidez osaturiko Administrazio Kontseilu batek arautzen eta administratzen du. Kide horiek hainbat probintzian dute beren egoitza (batek Alacanten, beste batek Coruñan, hiruk Madrilen eta zazpik Bizkaian).
- Hark estatutuetako honako helburu sozial hau du: "balore higigarriak eta beste finantza-aktibo batzuk erosi, izan, gozatu, administratu eta besterentzea, beste sozietate batzuetan partaidetza ekonomikoan edo

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

politikoan gehiengorik izan gabe dituen arriskuak eta etekin motak bere aktiboak egoki osatuz konpentsatzeko".

- Hura ez dago Bizkaiko ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda.
- Haren kontabilitate-liburuak sozietateak Madrilgo 3. EGOITZAN duen lokaleko bulegoetan daude, eta, beraz, lokal horretan egiten da kontabilitatea.
- Gainera, Madrilgo sukurtsal batek kudeatutako banku-kontu bat erabiltzen du, 1. BANKETXEAREN banku-kontu bat.
- Fakturak eta gainerako korrespondentzia guztia Bilboko egoitza sozialean jasotzen ditu. Gero, horiek ENTITATEAK Madrilen duen kudeaketa-sozietatera bidaltzen dira, bertan kontabiliza eta artxiba daitezen.
- Bere jardueraren izaera dela-eta, entitateak ez du fakturarik egiten eta ez du lan-kontratupeko langilerik, ezta ibilgeturik ere.

b) Zerga-egoitzari dagokionez BFAk proposatutako aldaketa egokia ote zen baloratze aldera, ZAEAk hainbat txosten egin zituen. ZAEAk Madrilen duen Ordezkaritza Bereziaren Eskualdeko Ikuskapen Bulegoak 2006ko ekainaren 8an egindako txostenean honako hau jasotzen da: "Madrilen helbideratuta dagoen erakunde kudeatzaileari zuzendaritza- eta kudeaketa-funtzio nahikoak esleitzen dizkion kudeaketa-kontratu bat badago, subjektu pasiboaren zerga-egoitza bere egoitzan kokatu beharko litzatekeela ondoriozta daiteke. Edonola ere, erakunde kudeatzailearen zerga-egoitza ez dago Madrilgo 3. EGOITZAN kokatuta –egoitza horretara proposatzen zaio aldatzea–, udalerrri horretako 2. EGOITZAN baizik (III. eranskina). Espedientean ez da agertzen ZAEAREN erantzunik entitatearen zerga-egoitza aldatzeko BFAk 2006ko apirilaren 11n egindako proposamenari dagokionez, nahiz eta "bi administrazioak ados jarri

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

direla (...)” baieztatu ZAEAk EAEn duen Ordezkaritza Bereziak 2010eko ekainaren 22an Madrilgo Ordezkaritza Bereziari igorritako jakinarazpenean (gatazka-planteamenduaren V. eranskina). Horrez gain, honako hau jasotzen da ZAEAk EAEn duen Ordezkaritza Bereziak 2011ko maiatzaren 31ko mezu elektronikoa bidez Bizkaiko Foru Ogasuneko Ikuskapen Zuzendariordeztari urtebete geroago egindako jakinarazpenean: "betebeharpekoaren zerga-egoitza egiaztatzeko alde aurretiko fasean (...), egoitza Madrilera aldatzeko bere proposamenarekin ados zegoela jakinarazi zitzaion Foru Aldundiari, baita preskribatu gabeko ekitaldietan atzeraeraginezko ondorioak izango zituela kontuan hartuta ere" (planteamendu-idazkiaren X. eranskina).

c) ENTITATEAK bere egoitza soziala aldatu zuen, Bilboko 1. EGOITZATIK Madrilgo 2. EGOITZARA (egoitza hori bat dator bere sozietate kudeatzailearen zerga-egoitzarekin), 2009ko abenduaren 18ko Akziodunen Batzar Nagusiaren akordio bidez. Era berean, bere zerga-egoitza aldatu zuen, 2010eko apirilaren 19an Bizkaiko Foru Ogasunean kasuan kasuko zentsu-aitorpena (036 eredua) aurkeztuta.

d) 2010eko ekainaren 22an, ZAEAk EAEn duen Ordezkaritza Bereziaren Eskualdeko Ikuskapen Bulegoak txosten bat igorri zuen, ZAEAk Madrilen duen Ordezkaritza Bereziaren Eskualdeko Ikuskapen Bulegoak 2006ko ekainaren 8an egindako txostenean oinarrituz. Bertan adierazten den moduan, "erakunde kudeatzailearen zuzendaritza- eta kudeaketa-funtzioak arautzen dituen kudeaketa-kontratuari buruzko dokumentaziorik ez izan arren (...), eta subjektu pasiboaren izaera juridikoa eta ekonomikoa kontuan hartuta (...), erakunde kudeatzaileak funtzio horiek bereganatzen dituela uler daiteke". Era berean, honako hau dio amaieran: "Geroago egingo diren egiaztapenak alde batera utzi gabe (...), bidezkotzat joko nuke, esandako moduan, subjektu pasiboaren zerga-egoitza Madrilen kokatuta dagoen erakunde kudeatzailearen egoitzara

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

aldatzea, 2. HELBIDERA, alegia, eta preskribatu gabeko ekitaldietan atzerako eragina izatea" (IV. eranskina).

e) 2010eko ekainaren 22an bertan, ZAEAk EAEn duen Ordezkaritza Bereziak jakinarazpen bat igorri zion ZAEAk Madrilen duen Ordezkaritza Bereziari, eta, bertan, honako hau jasotzen zen, arestian aipatutako txostenak kontuan hartuta: "bi administrazioek akordioa egin dute, eta tributubetebeharpekoak preskribatu gabeko ekitaldietatik Aldundiaren eskaera-egunera arte zerga-egoitza Madrilen izan zuela zehaztu dute", betiere egoitza-aldaketaren espedientea izapidetzen hasteko helburuarekin. Horrela, Estatuko Administrazioak eskumena izango du abiarazi behar dituen zerga-prozeduretan, baita zerga-adierazpenen eta dagozkion finantza-fluxuen eskaerak egiteko ere (V. eranskina).

f) 2010eko irailaren 1ean, ZAEAk Madrilen duen Ordezkaritza Bereziak "zerga-egoitza ofizioz aldatzeko espedientea irekitzea" erabaki zuen (...) "2006ko urtarrilaren 1etik aurrera, hura Madrilgo 2. EGOITZAN kokatzeko helburuarekin. Data hori bat dator akordio hau sinatu den egunean preskribatu gabe dagoen lehen zerga-ekitaldiaren hasierarekin". Horrela, 2010eko urriaren 20an, entitateari entzunaldiaren izapidea jakinarazi zitzaion, besteak beste honako hau zioen jakinarazpen baten bidez: "2010eko ekainaren 22an, Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritza Bereziak zera jakinarazi zion Madrilgo Ordezkaritza Bereziari (...), bi zerga-administrazioak, hau da, Foru Aldundiko eta Estatuko administrazioak, bat datozela entitatearen zerga-egoitza eratu zen egunetik Madrilen kokatuta egon dela esateko; hori dela-eta, egoitza aldatzeko izapideak abian jar daitezela eskatzen du (...)" (gatazka-planteamenduaren VI. eranskina). Nolanahi ere, 2014ko urriaren 16an Arbitraje Batzordean aurkeztutako alegazioetan, BFAk dio ZAEAk EAEn duen Ordezkaritza Bereziak 2010eko urtarrilaren 22an Madrilgo Ordezkaritza Bereziari bideratutako jakinarazpenean egiten den "bi administrazioen arteko" akordioaren

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

erreferentzia "Euskal Autonomia Erkidegoko eta Madrilgo Ordezkaritzei" buruzkoa dela, eta ez Foru Aldundiko eta Estatuko zerga-administrazioei buruzkoa (hamabosgarren aurrekaria).

g) 2010eko azaroaren 17an, ENTITATEAK idazki bat aurkeztu zuen zerga-egoitza ofizioz aldatzeko Estatu Administrazioak abiarazitako espedientean, eta, bertan, ZAEAK proposatutako egoitza-aldaketarekin ados ez zegoela adierazi zuen. Era berean, haren zerga-egoitzak eratu zen egunetik bertatik Bizkaiko foru-lurraldean kokatu behar zuela berretsi zuen, honako arrazoi hauek direla eta:

- Inbertsio Kolektiboko Sozietate gehienek helbidea Madrilen duen erakunde kudeatzaile bat dute, baina denek ez dute zerga-egoitza udalerrri horretan; izan ere, entitateak bere administrazio-kudeaketa eta bere negozioen zuzendaritza dituen egoitza hartu behar da kontuan, eta, ENTITATEAREN kasuan, helbide hori Bilbon kokatuta dago eratu zen egunetik.
- Administrazio Kontseiluko kide gehienek Euskal Autonomia Erkidegoan dute beren egoitza.
- BFAk "zentzuzkoena" haren zerga-egoitza sozietate kudeatzailearen egoitza berean kokatzea dela baieztatu arren –"baieztapen horren aldeko frogak aurkeztu gabe"–, entitatearen ustez, "administrazio-kudeaketaren eta negozioen zuzendaritzaren" egoitzari eutsi beharko litzaioke.
- 2006tik 2008ra, entitateak Bilbon zuzendu du batik bat bere negozioa, Kontseiluak sinatutako aktetan ikus daitekeen moduan. Akta horietan, entitateak gauzatutako kudeaketa-funtzioen artean hauek jasotzen dira, besteak beste: kontuen azterketa eta onspena, Kontseiluko kideen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

izendapena, entitateak izan dituen emaitzen azterketa eta enpresa-eragiketen onespena.

- 2006, 2007 eta 2008ko ekitaldietan, Administrazio Kontseiluaren urteko bost bileretatik lau Bilbon antolatu ziren.
- 2010eko apirilaren 19an, entitateak Madrilgo 2. EGOITZARA lekualdatu zuen bere zerga-egoitza, egoitza aldatzeko kasuan kasuko jakinarazpen-eredua aurkeztuz. Ezohiko Batzar Nagusiak erabaki zuen egoitzaz aldatzea, Bilbon, 2009ko abenduaren 18an. Akta horretan, 1. ADMINISTRATZAILEAREN eta 2. ADMINISTRATZAILEAREN izendapenak jasotzen dira entitatearen administratzaile gisa; biek Madrilgo 2. EGOITZAN dute helbide profesionala.

Dena den, honako hau dio entitateak: "Modu subsidiarioan, eta bulego horrek ENTITATEAREN zerga-egoitzak Madrilgo 2. EGOITZAN kokatu behar duela uste badu, egoitza-aldaketa preskribatu gabe dauden ekitaldi guztietarako egin beharko litzatekeela hartu behar da kontuan, hau da, 2004tik gaur egunera arte" (gatazka-planteamenduaren VII. eranskina).

h) 2010eko abenduaren 10ean, ZAEAk Madrilen duen Ordezkaritza Bereziaren Eskualdeko Ikuskapen Bulegoak beste txosten bat egin zuen. Bertan adierazten den moduan, inolako ondorioz gabe utziko litzateke entitatearen zerga-egoitza aldatzeko proposamena –2006ko urtarrilaren 1etik aurrera izango litzateke ondorioak–, eta partzialki balioetsiko lirateke tributu-betebeharpekoak aurkeztutako alegazioak, bere zerga-egoitza Bilbon behar bezala kokatuta dagoela uste baitu 2009ko abenduaren 18ra arte, hau da, entitateak bere egoitza soziala eta fiskala Madrileren aldatzea erabaki zuen eta zerga-egoitza Madrilen zuten administratzaileak izendatu zituen egunera arte. Bi gertakari horien ondorioz, "egun horretatik aurrera, eta ez 2010eko apirilaren 19tik aurrera (...) –egun horretan lekualdatu baitzuten, egoitza aldatzeko jakinarazpen-eredua aurkeztuz (...)", Madrilen egon behar du entitatearen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

zerga-egoitza berriak. "Aurreko ekitaldiei dagokienez –horrela amaitzen du–, bulego honen ustez, ezin da egiaztatu subjektu pasiboak bere zerga-egoitza Bilbon ez zuenik; horrenbestez, ezin izango litzateke haren egoitza aldatu, kasuan kasuko ondorioekin" (VIII. eranskina).

i) ZAEAk Madrilen duen Ordezkaritza Bereziaren Zerga Kudeaketarako Eskualdeko Bulegoak 20011ko apirilaren 11n emandako zerga-egoitza ofizioz aldatzeko akordioa. Haren bidez, abiarazitako espedientea ebatzi eta honako hau erabaki zen: "2009ko abenduaren 18tik aurrera, ENTITATEAREN zerga-egoitza [...] Madrilgo 2. EGOITZAN finkatzea". Horrenbestez, BFAk hasiera batean proposatutako (2006ko apirilaren 10eko idazki bidez) egoitza-aldaketaren atzeraeragina mugatzen da, entitateak Batzordean haren egoitza soziala eta fiskala aldatzea erabakitzen duen egunera, hain zuzen ere (IX. Eranskina).

j) 2011ko maiatzaren 31n, ZAEAk EAEn duen Ordezkaritza Bereziaren Erakunde Harremanetarako Eskualdeko Bulegoaren buruak posta elektronikoko bidez BFARI igorritako jakinarazpena, honako hau zioena:

"Ekonomia Itunean aurreikusitako egoitza-aldaketarako prozedura abiarazteko, Estatuak eta kasuan kasuko Aldundiak ados egon behar dute hark tributu-betebeharpekoarekin jarrai dezan, ebazpen-proposamena jakinarazi ostean.

Edonola ere, eta betebeharpekoak alegazioak aurkeztu ostean, Administrazioek beren iritzia aldatu ahal izango dute.

Kasu horretan, Administrazioak ados ez daudela ulertuko da, eta, beraz, beste Administrazioari jakinarazi beharko zaio, hala badagokio, hark Arbitraje Batzordearen aurrean gatazka aurkeztu ahal izan dezan, Ekonomia Itunaren 43.6. artikuluan aurreikusten den moduan.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

ENTITATEAREN (IFZ: ----) betebeharrekoaren zerga-egoitza egiaztatzeko alde aurretiko fasean Foru Aldundiari egoitza Madrilerara aldatzeko bere proposamenarekin ados zegoela jakinarazi arren –horrek preskribatu gabeko ekitaldietan eragingo lituzkeen atzeraeraginezko ondorioak kontuan hartuta–, eta tributu-betebeharrekoaren alegazioak ikusita, ZAEAk Madrilen duen Ordezkaritza Bereziari jarraian adierazten den ebazpen-proposamena formulatzea erabaki da, eta hura behar bezala jakinarazi da, dagozkion ondorioak izan ditzan" (gatazka-planteamenduaren X. Eranskina).

Planteamendu-idazkian, honako hau baieztatu zuen ZAEako zuzendari nagusiak: "2011ko maiatzaren 31n, ZAEAk hari hasiera batean jakinarazitakoaren aldaketa partzialeko akordioa jakinarazi zion BFARI, posta elektronikoko bidez, eta 2009ko abenduaren 18ra mugatu zen proposatutako aldaketaren atzeraeraginkortasuna, baina, egiaz, horrek entitatearen zerga-egoitzaren beste aldaketa-proposamen bat eragin zuen" (seigarren aurrekaria, 7. orria). Bestalde, ZAEAk zera helarazi zion BFARI "ebazpen-proposamen berri" gisa, ZAEAk Madrilen duen Ordezkaritza Bereziak 2011ko apirilaren 19an onartutako "zerga-egoitza ofizioz aldatzeko akordioa" (IX. Eranskina).

k) BFARI "aurreko proposamena" jakinarazi eta bi hilabeteko epea igarotzean hark erantzunik eman ez zuela ikustean, ZAEAk zera ulertu zuen [Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko 13.1. artikuluan arabera], BFA "zerga-egoitza atzeraeraginez aldatzearekin ados ez zegoela", ZAEAk eskatu bezala. Horrenbestez, EIABEko 13.2. artikuluan aurreikusitako hilabeteko epean BFAk erantzunik eman ez zuela ikusirik, ZAEAk gatazka hau planteatu zuen [hura 2011ko abuztuaren 29an egin eta hilaren 31 erregistratu zen]. EIABEren 10. artikuluan xedatutakoari jarraiki, ZAEAk alde aurretik egin zion jakinarazpena Autonomia Erkidegoak eta Toki Erakundeak Koordinatzeko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

Zuzendaritza Orokorrari, 2011ko abuztuaren 22an, hain zuzen ere (XI. Eranskina).

l) Espedientean jasotzen den moduan, 2011ko irailaren 9an, ZAEAk EAEn duen Ordezkaritza Bereziaren jakinarazpena erregistratu zen Bizkaiko Foru Ogasunean, eta, hala, gatazka Arbitraje Batzordearen aurrean aurkeztu zela jakinarazi zen abuztuaren 31n.

3.- 2014ko irailaren 22ko bileran, Arbitraje Batzordeak gatazka izapidetzea onartu zuen, eta BFA epatu zuen, alegazioak aurkez zitzan. BFAk hala egin zuen Bizkaiko Foru Ogasunaren Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako zuzendariordearen 2014ko urriaren 15eko idazki baten bidez (hurrengo egunean izan zuen sarrera erregistroan, hilaren 16an, alegia). Idazki horretan, "ENTITATEAREN zerga-egoitza [...] eratu zen egunetik bertatik haren sozietate kudeatzailearen egoitza dagoen leku berean kokatuta zegoela" aitor zezala eskatu zion Arbitraje Batzordeari. Honako hau adierazi zuen, laburbilduz:

- "Prozeduran zehar (...), Zerga Administrazioako Estatu Agentziak hainbat jarrera mantendu ditu entitatearen zerga-egoitzari dagokionez (...). Bizkaiko Foru Aldundia, berriz, tinko mantendu da bere jarrerari dagokionez, eta entitatearen zerga-egoitza eratu zen egunetik Madrilen kokatuta dagoela uste du, lurralde erkidean, alegia" (lehen oinarria).
- Bi Administrazioek defendatu eta Arbitraje Batzordeak berak behin baino gehiagotan aitortu duen moduan, "administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza kontzeptu juridiko zehaztugabeak dira, eta, horiek zehazteko, kasuko egoera guztiak hartu behar dira kontuan". Horregatik, entitatearen zerga-egoitza bere erakunde kudeatzailearen leku berean dagoela zehazteko orduan oso garrantzitsua da entitateak zerga-egoitza leku horretara alda dezala onartzea, baita BFAREN 2006ko eskakizunari erantzuteko idazkia erakunde kudeatzaileko ordezkariak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

bidal dezala ere, tributu-betebeharpekoaren ordezkartzan (bigarren oinarria).

- ZAEAk berak ondorioztatu duen moduan, "... zerga-egoitza lurralde erkidean dago Ezohiko Batzordeak hura lekualdatzeko akordioa hartu zuenetik, hau da, 2009ko abenduaren 18tik, eta, beraz, hura ezin da beste data batzuetan zehaztu. Hori dela-eta, hark Bilbon mantendu behar duela uste du, hura baita aitortzen dena". BFAren ustez, harrigarria da ZAEAk Foru Aldundiak proposatutako epealdi osoan zehar zerga-egoitza aldaketarik izan ez dela uste izatea, hau da, entitatea 1965ean eratu zenetik, betiere hiru ekitalditan gertatutakoa kontuan hartuta ["kontseiluaren 2006, 2007 eta 2008ko ekitaldietako bilerak Bilbon egingo ziratekeen"], eta "zerbitzuak eskaintzeko kontraturik ez izateagatik". Era berean, harrigarria iruditzen zaio ZAEA "deskribatutako jardunen sektoreko ohikotasuneko adierazpen hutsaletan oinarritu dadila -alegazio-idazki batean jasoak (...)-, ez baita jardun horiek gatazka honetan ere gertatzen direla baieztatzeko moduko ebidentziarik jaso" (hirugarren oinarria).
- Horrez gain, eta Arbitraje Batzordeak urtarrilaren 28ko 2/2009 Ebazpenean eta abenduaren 22ko 29/2011 Ebazpenean ebatzi duen moduan, administratzaileen zerga-egoitzak ezin du zerga-egoitzaren irizpide erabakigarri bat izan, eta, beraz, entitateak betetzen dituen jardueren izaera eta kasu bakoitzaren ezaugarriak hartu behar dira kontuan" (hirugarren oinarria).
- Azken batean, "espedientean agertzen diren datuen baterako balorazioa eginda, administrazio-kudeaketa eta zuzendaritza eraginkorra lurralde erkidean garatzen direla ondoriozta genezake [...], sozietatea 1965eko uztailaren 10ean eratu zenetik" (laugarren oinarria).

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

4.- 2014ko urriaren 6an, Arbitraje Batzordeak ENTITATEARI gatazka izapidetu egingo zela jakinarazi ostean –2014ko urriaren 23an egin eta hilaren 30ean erregistratutako idazki bidez–, SOZietate KUDEATZAILEAREN (IFZ: ----) SOZietate XURGATZAILEAK (IFZ: ----) zera eskatu zion Arbitraje Batzordeari, "espedientean zehar egin beharreko jakinarazpen eta eskakizun guztiak [...] Madrilgo 4. EGOITZARA bidal zitzala".

5.- 2014ko azaroaren 4an jakinarazitako agerian jartzeko izapidean, Bizkaiko Foru Aldundiak azken alegazio batzuk planteatu zituen 2014ko azaroaren 25eko idazki bidez (hilaren 26an erregistratu zen). Hura 2014ko urriaren 15ean egindako alegazioetan oinarritu zen, eta horiek berretsi zituen, ekonomia prozesala egokia izan zedin. Dena den, eta modu inkongruentean bada ere, Arbitraje Batzordeak "Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Bizkaiko Foru Aldundiarekin abiarazitako gatazka hau gaitzets dezala" eskatzen du amaieran, baita "ENTITATEAREN (IFZ: ----) zerga-egoitza aldatutzat eman dezala ere, hark Bilboko 1. EGOITZAN izan baitu zerga-egoitza, eratu zenetik 2009ko abenduaren 18ra arte" [sic].

6.- ENTITATEAREN erakunde kudeatzailearen SOZietate XURGATZAILEAK, espedientea agertzeko 2014ko azaroaren 4ko izapidean, 2014ko abenduaren 2ko alegazioak aurkeztu zituen, idatziz –horiek hilaren 3an erregistratu ziren–. Alegazio horietan, honako alderdi hauek jasotzen ziren, besteak beste: ENTITATEAK Bizkaiko Lurralde Historikoko araudia bete behar zuela, 1965ean eratu zenetik 2010ean bere zerga-egoitza Madrilera aldatzea erabaki zuen arte, haren egoitza soziala eta fiskala lurralde horretan zegoelako; 2002tik 2009ra bitarteko sozietateen gaineko zerga-aitorpenak aurkeztu zituen kasuan kasuko epeetan, eta, horietatik, honako zenbateko hauek itzuli behar izan ziren: 532.852,55 € (2002); 460.520,32 € (2003); 427.025,94 € (2004); 391.222,72 € (2005); 630.153,10 € (2006); 679.524,28 € (2007); 552.663,98 €

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

(2008); 595.460,10 € (2009). Jarraian, aurkeztutako aitorpen bakoitzaren egoera agertzen da:

- a) 2002 eta 2003ko ekitaldiei dagokienez, BFA entitateak eskatutako itzulketak egiten hasi zen 2003ko abenduaren 22an eta 2005eko urtarrilaren 26an, hurrenez hurren. 2010eko urriaren 25ean, entitateari behin-behineko bi likidazio-akordio jakinarazi zitzaizkion, eta, horien bitartez, BFAk bere garaian egindako itzulketak bere osotasunean itzul zitzala eskatu zion, berandutze-interesak barne.

Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak (FAEA) behin-behineko likidazio-akordio horiek baliogabetu zituen 2011ko irailaren 21ko zenbait ebazpen bidez. Horrela, bada, entitateak ezarritako erreklamazio ekonomiko-administratiboak partzialki balioetsi zituen (2010/1127 eta 2010/1128), baina ebatzi gabe utzi zuen "Administrazioak zerga-zorra likidatzeko duen eskubidearen preskripzioari" buruzko argudioa, Arbitraje Batzordeak ZAEAk eragindako gatazkaren inguruan ebatzitikoa bete beharko bailitzateke. Ebazpen horiekin ados ez zegoenez, entitateak errekurtsioa aurkeztu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean. Hark balioetsi egin zituen 2013ko uztailaren 12ko [428/2013 Epaia, Errek. zenb. 2215/2011 (2003ko ekitaldiari dagokionez)] eta 2013ko uztailaren 23ko [448/2013 Epaia, Errek. zenb. 2214/2011 (2002ko ekitaldiari dagokionez)] epaietan adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsioak, tributu-betebehardunak berak bere alegazioetan adierazten duen moduan, FAEAk dagoeneko baliogabetzat jo baitzituen aurkaratutako likidazioak, eta, beraz, Auzitegiak ezin baitzuen preskripzioaren inguruko erabakirik hartu. Dena den, Auzitegiak berak aitortu zuen moduan, Arbitraje Batzordeak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

planteatutako gatazka ebatzi eta Administrazio eskuduna zein den ebatzi ostean, berriz planteatu ahal izango da preskripzioari buruzko argudioa.

- b) 2004tik 2007ra bitarteko ekitaldien kasuan, BFAk ez zituen eskatutako itzulketak egin, eta Foru Ogasunaren isiltasuna kontuan hartuta, entitateak erreklamazio ekonomiko-administratiboa jarri zuen (zenbakia: 2009/854). FAEAk partzialki balioetsi zuen erreklamazioa 2010eko maiatzaren 20ko Ebazpen bidez, BFAren isileko ebazpen indargabetzailea Zuzenbidera egokitzen ez zela kontuan hartuta; izan ere, "bi Administrazioek sozietate aktorearen zerga-egoitzaren kokapenari buruz dituzten desadostasunak aintzat hartuta", Arbitraje Batzordearen Erregelamenduan arautzen den prozedura abiarazi beharko litzateke. Baiespen-epai horren aurkako errekurtoa (1158/2010 zenbakiko errek.) aurkeztu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean. Bertan, prozedura bertan behera uztea erabaki zen 2012ko urriaren 4ko Agindu bidez, Arbitraje Batzordeak entitatearen zerga-egoitzari buruz sortutako desadostasunek eragindako gatazka ebatzi arte.
- c) 2008ko ekitaldiari dagokionez, BFAk ez zuen eskatutako itzulketa egin, eta entitateak itzulketa-eskaera egin zuen berriz ere, berandutze-interesekin batera, 2013ko martxoaren 5ean. 2013ko martxoaren 20ko behin-behineko likidazio-akordio bidez, BFAk [2011ko irailaren 9tik ezagutzen zuen ZAEAk Arbitraje Batzordearen aurrean jarritako gatazka] uko egin zion itzulketari, sozietateak 2006ko martxoaren 28an preskribatu gabe zeuden ekitaldietatik zerga-egoitza Madrilen zuela ulertzen zuelako, hau da, BFAk entitatearen zerga-egoitza modu adiskidetsuan aldatzeko prozedura abian jartzeko Bizkaiko Foru Ogasunaren Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuak egindako Txostenaren egunetik.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

FAEAK BFAREN akordio hori baliogabetu zuen 2013ko uztailaren 12ko Ebazpen bidez, eta partzialki balioetsi zuen erreklamazio ekonomiko-administratiboa (zenbakia: 2013/00495). Dena den, eta entitateak berak adierazi duen moduan, alegazio-idazkia egin zen egunean (2014ko azaroaren 4an), BFAK egiteko zuen oraindik eskatutako itzulketa.

- d) 2009ko ekitaldiari dagokionez, hasiera batean, eta 2002ko eta 2003ko ekitaldietan bezala, BFAK entitateak eskatutako itzulketa egiteari ekin zion 2010eko abenduaren 21ean, eta gero, behin-behineko likidazio-akordioa abiarazi zuen 2011ko urtarrilaren 3an, ENTITATEARI hura itzul zezala eskatuz. 2011ko irailaren 21ean [2002ko eta 2003ko ekitaldiei buruzko FAEAREN ebazpenen egun berean], FAEAK gaitzetsi egin zuen entitateak BFAREN akordio horren kontra planteatutako erreklamazio ekonomiko-administratiboa (zenbakia: 2011/00208). Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak FAEAREN Ebazpen horren kontra jarritako 2216/2011 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsua gaitzetsi zuen 2013ko uztailaren 10eko 423/2013 zenbakiko epai bidez, Foru Administrazioak ENTITATEARI likidazioaren zenbatekoa eskatu beharko ez liokeela uste baitzuen, ez planteatutako arbitraje-gatazka konpondu arte behintzat.

Aurrekari horiek eta egokitzat jo zituen alegazioak oinarritzat hartuta, SOZIETATE KUDEATZAILEAREN SOZIETATE XURGATZAILEAK Batzordeari ebazpena eman dezala eskatuz amaitzen du bere idazkia, honako hau adostuz, hain zuzen ere:

"ENTITATEA Bilbon (Bizkaian) helbideratuta egon da adierazitako ekitaldi horietan, eta, beraz, entitateari 2004ko ekitalditik 2008ko ekitaldira zordundutako kantitateak ordain diezazkiola agintzen zaio Bizkaiko Foru Aldundiari, baita dagozkion berandutze-interesak ere.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

Horrez gain, eta Arbitraje Batzorde honek ZAEA ekitaldi horietako batzuei edo guztiei dagokienez Administrazio eskuduna dela erabakiko balu, ENTITATEAK bere zerga-egoitza ekitaldi horietan Madrilen izan duela ondorioztatuz, dagokion nagusiaren zenbatekoa eta dagozkion berandutze-interesak itzul ditzala eskatuko zaio Estatu Administrazioari".

7.- 2014ko azaroaren 4an Zerga Administrazioako Estatu Agentziari espedientea agerian jarri ostean, hark kasuan kasuko alegazioak aurkeztu zituen, idatziz, 2014ko abenduaren 3an -hilaren 9an erregistratu zen-. Bertan, 2011ko abuztuaren 29ko gatazkaren planteamenduak jasotako zuzenbideko oinarri eta aurrekari guztiak berretsi, eta BFaren alegazioei erantzun zien, jarraian labur azaltzen diren arrazonamenduen bidez:

1. Funtsik gabeko kritikatzat jotzen du, ZAEAk "bere jarrera aldatu baitu prozeduran zehar, BFAk berea aldatu gabe mantendu duen bitartean (...). Izan ere, ZAEAk, prozeduraren hasierako fasean igorritako lehen txostenetan (...), Madrilen kokatutako erakunde kudeatzailearen funtzioen irismenari buruzko dokumentu egiaztatzaileak ez dagoela ondorioztatu zuen; hori dela-eta, ezin da frogatutzat jo erakunde kudeatzaileak tributubetebeharpekoari dagozkion kudeaketa- eta zuzendaritza-funtzioak bereganatzen dituenik. Dena den, informazio gehiago lortu bitartean eta *gero egin daitezkeen egiaztapenei kalterik egin gabe*, erakunde kudeatzaileak funtzio horiek bereganatzen dituela "*ondorioztatzea izango litzateke*" "*zentzuzkoena*". Horrenbestez, ZAEA BFaren aldetik jasotako proposamenarekin ados agertu zen hasiera batean, arrazoizko aukera bat zela onartuz (...), betiere kontrakoa frogatzen duen bestelako dokumentaziorik agertzen ez bada. Eta hori da, hain zuzen ere, tributubetebeharpekoari bere zerga-egoitza ofizioz aldatzeko espedientea jakinarazten zaionean gertatzen dena, bere alegazio-idazkian (...) uko egiten baitio zuzendaritza-funtzioak eskuordetu eta erabakiak erakunde

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

kudeatzailearen alde hartu izanari (...), eta bere baieztapenak babesteko dokumentu ugari aurkezten ditu". Bestalde, "BFAREN ustez, prozeduran zehar aurkeztu diren probek eta dokumentuek ez dute bere hasierako jarrera aldatzen, eta tributu-betebeharpekoaren jardura ekonomikoaren zuzendaritzarekin lotuta "zentzuzkotzat" jotzen duenaren interpretazioan oinarrituz jarraitu du amaierara arte, bere jarrera sostengatzen duen inolako dokumenturik aurkeztu gabe" (laugarren alegazioa, 1).

2. BFAk egin zituen baieztapenei dagokienez, hau da, 2010. urtean tributu-betebeharpekoak bere zerga-egoitza erakunde kudeatzailearen helbidera lekualdatu zuela jakinarazi ziola eta 2006. urtean erakunde kudeatzailearen ordezkariak bere informazio-eskakizunari erantzun ziola jasotzen duten baieztapenei dagokienez -tributu-betebeharpekoaren ordezkari gisa-, ZAEAK honako hau dio: "egoitza Madrilera aldatu izana ez da entitatearen kudeaketa- eta zuzendaritza-funtzioak erakunde kudeatzaileak bereganatzen zituela adierazteko "aitorpen" bat, funtzio horiez arduratzen zen organo soziala aldatu zelako baizik [xurgapen bidezko fusio-eragiketa baten eraginez]; era berean, "harrigarria dirudi BFAk horren ohikoa den gertakari bati horrenbesteko garrantzia ematea, Administrazioaren informazio-eskakizun bati erantzutea kudeaketa-egintza hutsal bat baita, eta ez du zuzendaritza-funtzioen inplikaziorik eragiten, erakunde kudeatzaile bateko ordezkariak egin baitezake".

3. ZAEAK ez du bere baieztapen gisa hartzen BFAk esleitzen dion hau: "... zerga-egoitza lurralde erkidean dago Ezohiko Batzordeak lekuz aldatzeko akordioa egin zuen egunetik, hau da, 2009ko abenduaren 18tik. Horrela, bada, hura ezin da aurreko egunetarako zehaztu, eta, beraz, Bilbon mantendu behar du, deklaratu hura izateagatik". "Nabarmena dirudien moduan -dio-, ZAEAK ez du momentu bakar batean baieztatu zerga-egoitza 2009a baino lehen zehaztu ezin duenik. Bestalde, irmotasunez

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

baieztatzen du zerga-egoitza ez dela 2009ko abenduaren 18a baino lehenago aldatu, ez baita egiaztatu zerga-egoitza aldi horietan Bilbon kokatuta ez zegoenik, hau da, BFAk ez du dokumentu bidez edo beste bitarteko batzuen bidez frogatu proposatutako egoitza-aldaketaren bidezotasuna".

4. BFari harrigarriak iruditzen zaizkion alderdiei dagokienez, eta ZAEAREN ustez, Foru Aldundiak proposatutako zerga-egoitza aldatzen ez bada, hori ez da "zerbitzuak eskaintzeko kontratua ez izateagatik" bakarrik, "prozeduran ez delako garai horietan [2009a baino lehen] entitatearen zuzendaritza- eta kudeaketa-funtzioak entitateak berak zuzenean egiten ez zituela jasotzen duen dokumenturik" baizik. ZAEAK alegazio-idazki batean jasotako "adierazpen hutsei" erantzun izanari dagokionez, BFAk ez du "kontuan hartu adierazpen horiekin batera, horiek frogatzen dituzten hainbat dokumentu aurkeztu direla, Merkataritza Erregistroan inskribatutako dokumentuak barne"; horrez gain, honako hau gogorarazi du: "BFAk aipatutako adierazpenak entitateak zerga-egoitza ofizioz aldatzeko administrazio-prozeduraren barnean egindako entzunaldiari dagozkio -zerga-egoitza ofizioz aldatzeko espedientea ireki izanak eragindako prozedura-, eta, Zergei buruzko Lege Orokorraren 108. artikuluan xedatutakoari jarraiki, horiek ziurtzat hartu behar dira". ZAEAREN ustez, honako hau da harrigarriena: "BFAk zalantzan jarri du eta harridura agertu du (...) adierazpen eta dokumentu jakin batzuei arreta eskaini izanagatik, eta ez du kontuan hartzen BFAk bere jarrerari eusteko adierazpen edo dokumenturik aurkeztu ez duela; horrela, bada, susmo batzuetan mugatzen da zergadunaren zerga-egoitza modu horretara ofizioz aldatzeko".

ZAEAREN ustez, "BFAREN argudioek (...) ez dute indargabetzen tributubetebeharpekoak zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan behar bezala aitortu duenaren ustea (...)", betiere honako alderdi hauek kontuan hartuta:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

"1) Administrazio-doktrinak eta jurisprudentziak babestu egiten dute zerga-egoitza negozioen zuzendaritza eta administrazio-kudeaketa egiten den lekuan oinarritzen dela jasotzen duen jarrera, hau da, oinarritzko elementuak kokatzen diren lekuan –erakundearen kontratazioa, kontabilitatearen garapena eta administratzaileen egoitza, esaterako–. Elementu horiek guztiek zerga-egoitzaren lekua zehazten dute. Osagaiei dagokienez, elementu horiek beren osotasunean baloratu behar dira, eta, horretarako, horietako gehienak non gauzatzen diren zehaztu behar da, entitatearen zerga-egoitza finkatu ahal izateko.

2) Ez dago lotura uniboko edo automatikorik egoitza sozialaren eta fiskalaren artean. Auzitegi Gorenaren arabera (86/2009 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan emandako 2010eko otsailaren 4ko epaia), bi egoitzak bat etorriko dira arestian aipatutako negozioen zuzendaritza eta administrazio-kudeaketa egoitza sozialean modu eraginkorrean eta zentralizatuan egiten direnean.

3) Gatazka honetan, alderdi horren jarrera bermatzen duten eta gatazkaren planteamendu-idazkian dagoeneko adierazi diren hainbat gertakari daude:

- Tributu-betebeharpekoaren jarduera ekonomikoa erakunde kudeatzaile batek gauzatzen du bere osotasunean; hari zuzendaritza-organoek agintzen diete funtzio hori.
- Jarduera horrek ez du kontratazio-bulegorik behar eta bertan egiten da haren kontabilitatea, betiere entitateak Bilbon duen zerga-egoitzatik kontabilitate-dokumentuen oniritzia eta baimena eman eta horiek bidali ostean. Edonola ere, ondorio horietarako ez da garrantzitsua xede sozialaren zati handi bat osatzen duen balore higigarrien salerosketa-jarduera zein leku zehatzetik garatzen den, hark izaera teknikoa baitu, eta –2010eko otsailaren 4ko Epaia–ren laugarren zuzenbideko oinarrian jasotzen den moduan–, "*zeregin*

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

tekniko horiek ez datoz bat administrazio-kudeaketaren zentralizazio-irizpidearekin, are gutxiago negozioen zuzendaritzaren irizpidearekin", erakunde kudeatzaileak bere funtzioa betetzeko har ditzakeen erabakiak "bigarren mailako eta izaera teknikoko erabaki aplikagarriak baitira (...), baina ez zuzendaritza-funtzioetarako erabaki ordezkagarriak".

- Administratzaile gehienek Bizkaian dute beren zerga-egoitza, eta Administrazio Kontseiluaren bilera gehienak Bilbon egiten dira, planteamendu-idazkiarekin batera aurkeztu diren txostenetan frogatzen den moduan (Merkataritza Erregistroaren informazioa, entitatearen akta-liburuak), hau da, entitatearen zuzendaritza-funtzioak Bilbotik garatzen ziren, subjektu pasiboaren organo sozialen aldetik. Horrela, bada, Madrilen kokatutako erakunde kudeatzailea horiek hartutako erabakiak gauzatzeaz bakarrik arduratzen zen, entitateak aurkeztutako Administrazio Kontseiluko aktetatik ondoriozta daitekeen moduan" (laugarren alegazioa).

8.- Prozedura hori Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen araudia onartzen duen abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuan xedatuta dagoenaren arabera izapidetu da.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- 2011ko abuztuaren 31n, ZAEAko zuzendari nagusiak, Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko 10. artikuluko d) letran oinarrituta, "eskumen-gatazka jarri zuen (...) Bizkaiko Foru Aldundiaren aurka". Horrela, duela bost urte abiarazitako -ez ZAEAk, BFA berak baizik- ENTITATEAREN egoitzari buruzko gatazka planteatu zuen, Foru Aldundia ez baitzegoen ados entitateak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

Bizkaiko Lurralde Historikoan aitortutako zerga-egoitzarekin (Bilboko 1. EGOITZA), eratu zen egunetik bertatik.

2.- Izan ere, eta espedientearen azterketak argi eta garbi islatzen duen moduan, gatazka sortu duen desadostasuna BFAk eragin zuen 2006ko apirilaren 11n, hark ZAEARI igorri zion proposamenarekin. Haren bidez, Ekonomia Ituneko 43. artikuluko bederatzigarren zenbakian aurreikusitako prozedura abiarazi zen, ENTITATEAK Bilbon zuen zerga-egoitza Madrilera aldatzeko, ondorioak eratu zen egunetik bertatik sortuz, hau da, 1965eko uztailaren 10etik. (Gatazka-planteamenduaren I. Eranskina).

BFAk abiarazitako prozedura adiskidetsu hori Foru Ogasuneko Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuak egindako jarduketek eragin zuten aldi berean, betiere ENTITATEAK eratze-datatik Bilbon aitortuta zuen zerga-egoitza (1. HELBIDEA) egiaztatzeko helburuarekin.

Egoitza soziala eta fiskala Bizkaiko Lurralde Historikoan duen entitatea izanik, ENTITATEAK Foru Ogasun horretan aurkeztu zituen sozietateen gaineko zerga-aitorpenak; izan ere, 2002tik 2009ra arteko zergaldietan, itzuli beharreko zerga-kuotak eragin zituen, ebazpen honetako 6. aurrekarian xehatzen diren zenbatekoak, hain zuzen ere. Era berean, BFARI ekitaldi horiekin lotuta eskatzen zaizkion itzulketen gaur egungo egoeraren eta gorabeheren berri ematen da bertan; Arbitraje Batzorde honek entitateak berak aurkeztutako alegazioei esker izan du horien berri.

2003ko abenduaren 22an eta 2005eko urtarrilaren 26an ENTITATEAK 2002ko eta 2003ko aitorten-likidazioetan eskatutako itzulketak egin ostean, Bizkaiko Foru Aldundiak entitatearen egoitza sozialari buruzko informazioa bereganatzeko prozedura bat abiarazi zuen. Horrela, 2006ko urtarrilaren 20an "zerga-egoitza zehazteko errekerimendu" bat egin zen; sozietateak otsailaren 28an erantzun zion, eta, horren ostean, Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuak txosten

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

bat igorri zuen 2006ko martxoaren 28an (II. Eranskina). Txosten horretan oinarrituz, BFAk ENTITATEAREN zerga-egoitza Bilbotik Madrilera aldatzeko proposamena igorri zion, 2006ko apirilaren 11n, ZAEAk EAEn duen Ordezkaritza Bereziari, eratze-datatik bertatik kasuan kasuko ondorioak eraginez.

3.- Espedientean ez da jasotzen ZAEAk BFaren aldetik jasotako aldaketa-proposamenari emandako erantzuna, baina "zerga-egoitza egiaztatzeko alde zurretiko fasean" -2011ko maiatzaren 31n BFari bidalitako mezu elektronikoaren arabera-, ZAEAk jakinarazpen bat egin ziola esan genezake. Bertan, zerga-egoitza Madrilera aldatzeko proposamenaren hasierako bere adostasuna adieraziko zion, preskribatu gabeko ekitaldietan atzeraeraginezko ondoreak eraginez, eta betiere ZAEAk Madrilen duen Ordezkaritza Bereziak 2006ko ekainaren 8an igorritako txostenean oinarrituz (Zfr; *supra*, 2. b aurrekaria).

Izan ere, ZAEAk BFari "hasiera batean jakinarazitako akordioa (...)" aipatzen du bere planteamendu-idazkian. Era berean, honako hau dio 2014ko abenduaren 19ko bere alegazioetan: "hasieran, BFaren aldetik jasotako proposamenarekin ados zegoela, zentzuzko aukera bat zela onartuz, hura egiaztatzeko moduko dokumentaziorik aurkeztu ez arren eta kontrakoa frogatzen zuen dokumenturik eza aintzat hartuta" (laugarren alegazioa, 5. orria).

Bestalde, ENTITATEAK egin dituen behin-behineko likidazioei dagokienez Bizkaiko Foru Aldundiak izan duen jarrera ez dator bat Arbitraje Batzordearen aurrean aurkeztutako alegazioetan mantentzen duen alderdi horren inguruko jarrerarekin.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

Izan ere, ENTITATEAREKIN izandako jarduketetan BFAk bi Administrazioen arteko akordio bat aipatzen eta aitortzen du entitatearen zerga-egoitzari dagokionez.

- 2002ko ekitaldiko sozietateen gaineko zergari dagokion 2010eko urriaren 8ko behin-behineko likidazioarekin batera entitateari jakinarazitako "likidazio-kalkuluak zabaltzeko orrian" [haren bitartez, entitateari zazpi urte lehenago, hau da, 2003ko azaroaren 20ko behin-behineko likidazioan, aitortu eta egin zitzaion itzulketa -532.852,55 euroko bere aitorten likidazioan eskatutakoaren arabera- itzul dezala eskatzen zaio ENTITATEARI] -ordaindu beharreko zenbatekoa 725.062,60 eurokoa da guztira-, Zuzeneko Zergen Zerbitzuko buruak honako hau aitortu zuen, zalantzarik gabe: "kasu honetan, akordioa egin dute biek (Administrazioek), 2006ko apirilaren 10ean, Bizkaiko Foru Aldundiak zergadunaren egoitza aldatzea proposatu baitzion Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, hura Bizkaian ez zegoela ulertzen baitzuen, Madrilen baizik; horrela, bada, ZAEAREN Eskualdeko Bulegoko buruak zera jakinarazi zion Administrazio honi 2010eko ekainaren 22an, zergadunaren egoitza Madrilen zegoela Bizkaiko Foru Aldundiaren eskaera-egunean preskribatu gabe zeuden ekitaldietatik, hau da, 2006ko apirilaren 10etik preskribatu gabe zeuden ekitaldietatik" [horrela jasotzen da Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioak (aurrerantzean, FAEA) 2011ko irailaren 21ean emandako Ebazpenaren laugarren aurrekarian, ENTITATEAK behin-behineko likidazio horren kontra jarritako 1127/2010 Erreklamazioa partzialki balioetsiz).
- "Likidazio-kalkuluak zabaltzeko orrian" adierazpen berbera jasotzen da; hura 2003ko sozietateen gaineko zergaren 2010eko urriaren 8an behin-behineko likidazioarekin batera jakinarazi zen, eta, haren bitartez, 2004ko abenduaren 7ko aurreko behin-behineko likidazioan aitortutako itzulketa itzul dezala eskatzen zaio ENTITATEARI -460.520,32 euro-, baita

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

dagozkion berandutze-interesak ere -602.439,45 euro, guztira- (Zfr, Bizkaiko FAEAREN 2011ko irailaren 21eko partzialki oniritzeko ebazpena, 1128/2010 Erreklamazioko laugarren aurrekarian emandakoa).

- Era berean, 2011ko urtarrilaren 3an egindako 2009ko ekitaldiko sozietateen gaineko zergaren [2010eko abenduaren 1ean, aitopenlikidazioan eskatutako kantitate bera itzuli behar izan zen, ofizioz] behin-behineko likidazioan -595.460,10 euroko diru-sarrera eragin zuen-, honako hau aitortu zuen Zuzeneko Zergen Zerbitzuko buruak: "ZAEAREN Eskualdeko Bulegoko buruak 2010eko ekainaren 22an jakinarazitako akordioaren arabera, zergadunaren egoitza Madrilen kokatuta zegoen Bizkaiko Foru Aldundiaren eskaera-egunean preskribatu gabeko ekitaldietatik, hau da, 2006ko apirilaren 10etik. Bi administrazioek -dio- Ekonomia Itunari buruzko 12/2002 Legeko 43.9. artikuluan xedatutakoa oinarritzat hartuta egin zuten akordioa (...) (Zfr; Bizkaiko FAEAREN 2011ko irailaren 21eko ebazpena, 208/2011 erreklamazioko hirugarren aurrekarian agintzen dena).
- Azkenik, eta 2010eko ekainaren 25ean egindako 2008ko sozietateen gaineko zergari dagokion behin-behineko likidazioari dagokionez, honako hau aitortu zen: "Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Eskualdeko Bulegoko buruak jakinarazitako akordioarekin bat etorriz eta 12/2002 Legearen 43.9 artikuluan zehazten dena kontuan hartuta (...), subjektu pasiboak zerga-egoitza Madrilen duela ulertzen da Bizkaiko Foru Aldundiak eskaera egin zuen egunetik preskribatu gabeko ekitaldietatik, hau da, 2006ko martxoaren 28tik (Zfr; Bizkaiko FAEAREN 2013ko uztailaren 12ko ebazpena, 495/2013 erreklamazioaren bigarren aurrekarian agintzen dena).

Bestalde, 2014ko urriaren 16an Arbitraje Batzordeari egindako alegazioetan -errepikatu egiten ditu azaroaren 25eko amaierako alegazioetan-, BFAk zera dio "bi administrazioen arteko" akordioaren inguruan -ZAEAK EAEN

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

duen Ordezkaritza Bereziak Madrilgo Ordezkaritza Bereziari 2010eko ekainaren 22an bideratutako jakinarazpenean jasotzen zen-, hura ez dagokiela "Foru Aldundiko eta Estatuko zerga-administrazioei", ZAEAk EAEn eta Madrilen dituen ordezkarietzi baizik (Zfr; *supra*, 2.f aurrekaria).

4.- Era berean, espedientean ez da jasotzen Administrazioek (BFAk, egoitza-aldaketa proposatu zuenak, nahiz ZAEAk, proposamen-hartzaileak) zein ekimen eta jarduketa abiarazi zituzten (hala badagokio) Ekonomia Ituneko 43. artikuluko bederatzigarren zenbakian helburu horrekin aurreikusten den prozeduran sortutako desadostasunak modu adiskidetsuan ebazteko. Era berean, ez dakigu Administrazioek Ekonomia Ituneko 43. artikuluko bederatzigarren zenbakian jasotako aurreikuspena errazteko eta normalizatzeko "helbide-aldaketen lan-taldearen ondorioetan" adostutako koordinazio-arauak kontuan hartu zituzten ala ez, ZAEAk eta Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Aldundiek 2006ko maiatzaren 18an egindako bileraren aktan jasotzen diren moduan.

Dena den, espedientean argi eta garbi adierazten da, kasu honetan, bi Administrazioek Ekonomia Itunean agindutakoari jaramonik egin ez ziotela: batetik, 43. artikuluko bederatzigarren zenbakian aurreikusitako zerga-egoitza aldatzeko prozedura behin betiko irekita mantentzeko zitekeela pentsatzean, hau da, Administrazioen artean adostasunik edo behin betiko akordiorik lortzen ez bada, Arbitraje Batzordera jo gabe (Itunaren 43. artikuluko seigarren zenbakia eta Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko 13.1. artikulua); eta, bestetik, ahalmen likidatzailea ez etenda, eskumen-gai bat planteatu edo sortu arren, eta hura alde bakarretik ebaztea erabakiz; edo, aitzitik, zergadunarekin lotutako bere eskumenak gauzatzeari utziz -hark haren menpe egoten jarraitzen zuen bere itzulketa-eskaerei erantzuteko-, betiere eskumen-gatazka ebatzi arte, eta gero Administrazioen artean egin beharreko zerga-konpentsazioei eta -zuzenketei kalterik egin gabe (Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko 15.2.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

artikulua, gero Ekonomia Itunaren 66. artikuluko hirugarren zenbakira txertatua); edo, azken batean, aldaketa horretan interesik ez duen zerga-administrazioak *"egoitza aldatzeko"* prozedura sustatuz [zergadunaren zerga-egoitza behar bezala aitortu dela ikustean], eta gero Arbitraje Batzordearen aurrean eskumen-gatazka bat planteatuz, gatazka eragin duen Administrazioak berak gatazka alde bakarretik ebaztea erabaki eta hilabete batzuk beranduago.

5.- Ekonomia Itunean eta Arbitraje Batzordearen Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, zerga-egoitzaren aldaketa sustatzen duen Administrazioak ezin izango du bere aldaketa-proposamena onartu edo atzera bota, Administrazio hartzaileak haren inguruko *behin betiko* erabakia adierazi arte.

Azken horrek bi hilabeteko epea izango du [ordu] zerga-egoitza aldatzeko proposamenari buruz duen iritzia azaltzeko eta ondoreak zein egunetatik sortuko diren adierazteko. Epe horretan *erantzuten ez badu* (Ekonomia Itunaren 43. artikuluko bederatzigarren zenbakia), egoitza aldatzeko interesa duen Administrazioak honako hauek egin ahal izango ditu, kasuaren ezaugarriak eta proposamenaren Administrazio hartzaileak agertutako jarrera kontuan hartuta:

- azken horrek zehaztutako epean *erantzun ez izana adostasunik eza* gisa ulertu ahal izango du, gatazka Arbitraje Batzordera eramanez;
- edo, zehaztutako epea igaro arren, errekerimendua jaso duen Administrazioak zerga-egoitza aldatzeko proposamenaren inguruan duen *behin betiko* iritzia aztertu ahal izango du, horretarako, koordinazio- eta lankidetzaren printzipio orokorrak gaitzen eta eskatzen dituzten Administrazioen arteko barne-komunikaziorako bitartekoak, edo egoitza-aldaketarako prozeduretan zehatz-mehatz zehazten diren bitartekoak erabiliz. Hala badagokio, proposamena tazituki gaitzetsizat jo ahal izango da, isiltasun negatiboari buruzko araudi

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

orokorra aplikatuz eta betiere gatazka Arbitraje Batzordearen aurrean sustatzeko helburuarekin.

6.- Kasu honetan, espedienteko datuak aztertuz honako ondorio hauek atera daitezke: batetik, Bizkaiko Foru Aldundia zela ENTITATEAK Bilboko 1. EGOITZAN aitortuta zuen zerga-egoitza aldatzearen Administrazio interesdun bakarra, hura 1965eko uztailaren 10ean eratu zenetik; eta, bestetik, Foru Aldundiak Ekonomia Itunaren 43. artikuluko bederatzigarren zenbakian "zergadunen egoitza zein den erabakitzeko orduan administrazioen artean sortzen diren auziak (...)" ebazteko aurreikusten den prozedura (43. artikuluko seigarren zenbakia) behin betiko irekita egon zitekeela uste zuela. Hori dela-eta, 2006ko apirilaren 11n ZAEARI ENTITATEAREN zerga-egoitza aldatzeko proposamena helarazi eta lau urte baino gehiago igaro ostean, BFAk ebatzitzat jo zuen sortutako desadostasuna, eta bi Administrazioek akordioa egin zutela berretsi zuen, betiere Ekonomia Itunaren 43. artikuluko bederatzigarren zenbakian zehaztutakoa oinarritzat hartuta. Hala dio BFAko Zuzeneko Zergen Zerbitzuko buruak 2010eko urriaren 8an ENTITATEARI jakinarazitako behin-behineko likidazio-akordioetan. Bertan, 2002 eta 2003ko ekitaldietako sozietateen gaineko zergaren itzulketak itzul ditzala eskatzen zaio entitateari, BFAk berak 2003ko azaroaren 20ko eta 2004ko abenduaren 7ko behin-behineko likidazioetan aitortu zizkionak, hurrenez hurren. Edo 2011ko urtarrilaren 3ko behin-behineko likidazioan, entitateari 2009ko ekitaldiko sozietateen gaineko zerga itzul zezala eskatu baitzitzaion; hura 2010eko abenduaren 1ean itzuli zen (Zfr; zuzenbideko 3. oinarria).

7.- Dena den, eta BFAREN jarrera inkongruentea [ENTITATEAREKIN mantendutako harremanetan, "Foru Aldundiko eta Estatuko zerga-administrazioen" arteko akordioa zegoela adierazi zuen, baina hori ukatu egin zen 2014ko urriaren 16an Arbitraje Batzordearen aurrean jarritako alegazioetan], eta BFAk onartutako oinarri prekariora eta zalantzarria -ZAEAK

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

2006ko ekainaren 8ko bere txostenean agertutako aldez aurretiko adostasunaren behin betiko onespentzat hartu zuen- alde batera utzita, ezin da zergadunen zerga-egoitza aldatzeari buruzko prozedura adiskidetsu bat, *sine die*, behin betiko izaeraz ebatzi gabe eta irekita mantenduko duen Ekonomia Ituneko 43. artikuluko bederatzigarren zenbakiaren interpretaziorik onartu, urte batzuk geroago, aldaketa sustatu duen Administrazioak, arrazoia izan ala ez, proposamenaren Administrazio hartzailearekin akordioa egin dela ulertzen duen arte; era berean, errekerimendua jaso duen Administrazioaren erantzunik eza edo isiltasun luzatua ezin izango da adostasunik eza gisa hartu, eta gatazka Arbitraje Batzordearen aurrean planteatu ahal izango da, hala nahi izanez gero.

Auzitegi Gorenak 2012ko ekainaren 7ko Epaian -9/2011 erre.- adierazten duen moduan, "ezarritako epean erantzun-falta izanez gero, aldaketa sustatu zuen Administrazioak egokitzat jotzen duenean, ezerk ez duela saihesten horrek aldaketa-proposamena tazituki gaitzetsita ulertu ahal izatea eta gatazka formalki sustatzea, isiltasun negatiboari buruzko araudi orokorra aplikatuz (...)" (Seigarren Oinarria). Dena den, eta zerga-egoitzaren aldaketa sustatu duen Administrazioari ondorio horietarako aitortzen zaion diskrezionaltasuna aintzat hartuta, hark behar bezala bateratu behar ditu fede oneko eskakizunak eta segurtasun juridikoko eskakizunak. Bereziki, kontuan izanda, zergadunen helbideratzeari buruzko desadostasun administratiboetan, ez dela nahastutako Administrazioen eskumen-egoera soilik eragiten, baizik eta, bereziki, zergadunek Administrazio fiskalarekiko harremanetan duten ziurtasun-eskubidea (Zfr; 2014ko maiatzaren 5eko Auzitegi Gorenaren Epaia, erre. 256/2012, FJ 4). Izan ere, «gatazka zerga-erregimen ezberdineko organoen artean ematen bada ere, beti aurkitu daitezke euren zerga-egoera gatazkaren ebazpenaren menpe edo baldintzapean duten interesdun partikularrak eta, zergadun bezala, horiek dagozkien eskubideen eta bermeen errespetu-eskubidea dute» (2013ko apirilaren 11ko Auzitegi Gorenaren Epaia, erre. zk. 17/2012, 3. Oinarria).

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

Azken gogoeta hori bereziki garrantzitsua da gatazka honetan, bertan, 2002ko ekitalditik 2009ko ekitaldira arteko ENTITATEAREN sozietateei buruzko zergaren zerga-itzulketak baitaude jokoan. Azken egoera hori dela-eta, ZAEArekin harremanetan jar zedila eskatzen zitzaion egoitza-aldaketa proposatu zuen Foru Aldundiari, prozeduraren fase adiskidetsuan, hark entitatearen egoitza-aldaketaren proposamenari buruzko behin betiko onespina eman eta, hala badagokio, desadostasunak Arbitraje Batzordearen aurrean planteatzeko helburuarekin, betiere 2008ko apirilaren 4an eratu ostean.

8.- ENTITATEAREN zerga-egoitza aldatu nahi zuen BFAREN proposamenari dagokionez –2006ko apirilaren 11n bidali zitzaion ZAEARI–, hark honako jarduketa hauetakoren bat egin beharko zukeen, errekerimendua jaso duen Administrazioa den heinean:

- egoitza-aldaketari buruzko proposamena eta ondoreak eragiten dituen data onartu;
- Administrazio proposatzaileari bere desadostasuna helarazi, jasotako proposamena aldatzeko oharrak egin edo, era berean, kontraproposamen bat egin;
- ez erantzun, horrela, adostasunik eza adieraziz; edo
- proposamenaren hasierako eta behin-behineko adostasuna adierazi, betiere aurrerago egingo diren egiaztapenetan baldintzatuz, horiek ezin izango baitira behin betiko zintzilik geratu.

Dena den, ez dirudi batere onargarria ZAEAK –BFAK sustatutako prozeduran zerga-egoitza aldatzeko proposamen adiskidetsua jaso zuen Administrazioa– "egoitza egiaztatzeko alde aurretiko fasean" (ZAEAK Madrilen duen Ordezkaritza Bereziaren 2006ko ekainaren 8ko txostena) aldaketa-proposamenarekin duen behin-behineko adostasuna eman eta, "ZAEAREN

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

Eskualdeko Bulegoko buruak 2010eko ekainaren 22an jakinarazitako akordio baten ostean [lau urte beranduago], bost urte beranduago, hau da, 2011ko maiatzaren 31n, aldaketa sustatu duen Administrazioari (BFari) kontraproposamen bat bidaltzea, "ebazpen-proposamen berri bat balitz bezala", eta, bi hilabete beranduago, Arbitraje Batzordearen aurrean gatazka hau jartzea, epe horretan BFaren adostasuna jaso ez duelako, hau da, hasiera batean entitatearen egoitza-aldaketa sustatu duen Foru Aldundiaren aldetik adostasunik jaso ez duelako; izan ere, entitatea Bizkaiko Lurralde Historikoan aitortuta zegoen eratu zen egunetik (1965eko uztailaren 10etik), eta, azken finean, hura da egoitza-aldaketan interesa duen zerga-administrazio bakarra, eta, beraz, hura sustatzeko legitimatuta dagoen Administrazio bakarra.

Horrez gain, ZAEAk (hau da, proposamenaren Administrazio hartzaileak), hura jaso eta bost urtetara, "aldaketa-proposamen berri bat" helarazi zion Foru Aldundiari –hala dio berak–, baina, egiaz, ZAEAk bere aldetik hartutako zerga-egoitza aldatzeko akordioa da. Izan ere, hark ENTITATEAREN zerga-egoitza ofizioz aldatzeko espedientea amaitutzat ematea erabaki zuen 2011ko apirilaren 19an, 2011ko abuztuaren 31n gatazka Arbitraje Batzordera eraman baino hilabete batzuk lehenago, eta hura entitateak berak aitortuta zuen Madrilgo 2. EGOITZAN finkatzea erabaki zuen, ondorioak 2009ko abenduaren 18tik aurrera eragingo zituelarik (planteamendu-idazkiaren IX. Eranskina). Gainera, espedientean ez da jasotzen Estatuaren Zerga Administrazioak emandako ebazpen-akordio honek aurkaratzerik edo baliogabetzeak izan ez duenik.

9.- Era berean, eta padoxikoa badirudi ere, "zerga-betebeharpekoak gatazkaren xede izan den denboraldian zehar zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan behar bezala aitortu duela" dioen zerga-administrazioa izan da "egoitza-aldaketarako" prozedura (berriz) abiarazi duen Administrazioa –"aldaketa-proposamen berri" baten bitartez–. Baita, eskumen-gatazka alde

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

bakarretik ebatzi eta hilabete batzuk geroago, Arbitraje Batzordera joan eta ENTITATEAK aitortutako zerga-egoitza entitateak orain arte aitortu duen lurraldean kokatuta dagoela ebaztea ere.

10.- Ekonomia Itunaren 43. artikuluko bederatzigarren zenbakiaren arabera, "Administrazio interesatuetatik edozeinek zergadunaren egoitza aldaketa eragin ahal izango du. Administrazio horrek bere proposamena besteari helaraziko dio (...), egoitza-aldaketari buruz duen iritzia azaltzeko eta ondoreak zein egunetatik sortuko diren adierazteko". Era berean, "ados jartzen ez badira ere, prozeduran aurrera jarraitu ahal izango da artikuluko honetako seigarren zenbakian azaldutako eran", hau da, Arbitraje Batzordeari Administrazioen arteko kasuan kasuko zergadunaren helbideratzeari buruzko desadostasuna helaraziz. Dena den, desadostasun hori horretarako legitimitatea duen Administrazioak bakarrik planteatu ahal izango du, Ekonomia Itunean eta Arbitraje Batzordearen Erregelamenduan aurreikusten diren bideak erabiliz.

Lurralde Erkidean helbideratuta ez dagoen entitate bat dela kontuan hartuta, printzipioz, ZAEAK ez du interes juridikorik, eta, beraz, legitimaziorik Arbitraje Batzordera joan eta "gatazkaren xede izan den denboraldian, tributubetebeharpekoak zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan behar bezala aitortu duela" ebazteko (...). Edo, beste termino batzuetan esanda, Arbitraje Batzordeak ENTITATEAK aitortutako zerga-egoitza entitateak berak aitortu duen lekuan dagoela adostu dezan; bestalde, ZAEAK gatazka planteatu baino hilabete batzuk lehenago "aldaketa" akordioan zehaztea ebatzi zuen lekuan; izan ere, hark amaiera eman zion ENTITATEARI irekitako egoitza aldatzeko espedienteari, BFAri "aldaketa-proposamen berri baten" gisa jakinarazi ostean.

Bestalde, ZAEAK ez du eskumenik edo ahalmen juridikorik BFA ordezkatu edo haren jarrera subrogatzeko, betiere Arbitraje Batzordeari gatazkaren ebazpena eskatzeko helburuarekin. Gainera, eta hala badagokio, hura Foru Aldundiak sustatu beharko zukeen, gatazka planteatu zen momentuan, hura

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

baitzen, argi eta garbi, entitateak Bizkaiko Lurralde Historikoan aitortutako zerga-egoitzarekin ados ez zegoen Administrazio bakarra, 2009ko abenduaren 18an hark Madrilera lekualdatzea erabaki zuen arte.

Era berean, Arbitraje Batzorde honek ez du behar bezala planteatuta ez dauden gatazkak onartzeko eskumenik, hau da, beharrezko baldintzei eta Ekonomia Itunean eta abian den Erregelamenduan aurreikusten diren prozedurekin bat etorriz planteatuta ez dauden gatazkak onartzeko eskumenik. Ezta Administrazioek modu erratikoan formulatutako gatazkak ofizioz autoplateatu edo berreraikitzeke ere, horiek ordenamendu juridikoan xedatutakora egokitzeko helburuarekin.

Estatuko Zerga Administrazioaren ustez, "zerga-betebeharpekoak behar bezala aitortu du" ENTITATEAK Bizkaiko Lurralde Historikoan duen zerga-egoitza, eta, beraz, 2011ko maiatzaren 31n BFAren aurrean abiarazi zen "zergadunaren *egoitza-aldaketa* eragiteko" prozedura adiskidetsuak ez zuen batere zentzurik, Ekonomia Itunaren 43. artikuluko bederatzigarren zenbakiaren babespean. Entitateak aitortutako zerga-egoitza aldatzeko inolako interesik ez duen zerga-administrazioak abiarazitako gatazkak ere ez du batere zentzurik; izan ere, hura Arbitraje Batzordera joan zen hark ENTITATEAREAN egoitza entitateak berak aitortzen duen lekuan dagoela ebatz zezan. Eta, jakina, inolako xederik gabeko arbitraje-gatazka hau ezin da inola ere onartu, are gutxiago hura eragiteko interesik eta legitimaziorik ez duen Zerga Administrazio batek planteatu zuela kontuan hartuta.

11.- Nolanahi ere, gatazka hau onartu ez izanaren adierazpenak ez dio arbitraje-prozedura honetan nahastutako entitatearen xede edo interes legitimoari erantzuten. Izan ere, hark itzultzeko ditu oraindik 2002ko ekitalditik 2009ko ekitaldira arteko sozietateen gaineko zergaren itzulketak, eta nahastutako Administrazioen pasibotasunak edo ez-betetzeek ez dute are gehiago kaltetu behar haren eraginkortasuna. Horregatik guztiagatik, eta

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

zalantzan jarriko duen eskumen-gatazka bakar bat ere modu baliotsuan planteatu ez denez, ENTITATEAK 2009ko abenduaren 18ra arte Bilbon aitortutako egoitzaren egiazkotasunaren lege-presuntzioa onartu beharko da, data horretan erabaki baitzen Madrilera lekualdatzea. Horrenbestez, BFA izango da, hala badagokio, ENTITATEAK Bizkaiko Foru Ogasunean aurkeztutako 2002tik 2008ra bitarteko ekitaldietako sozietateen gaineko zergaren itzulketak egiaztatzeko eta gauzatzeko eskumena izango duen Administrazioa, 2009ko abenduaren 18an, zerga-egoitza Madrilera aldatzea adostu aurretik. Zerga-itzulketak horiek ez lirateke eten ere egin beharko, ezta orain onartutzat eman ez den gatazka honek eragindako liskarraldian zehar ere, Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko 15.2. artikuluan antolatutakoa bete izan balitz. Haren arabera, "harik eta eskumen-gatazka ebazten ez den arte, kasuan kasuko zergadunak zergapetzen aritu den administrazioak zergadunok bere eskumenaren pean edukitzen jarraituko du, alde batera utzita administrazioen artean egin behar diren tributu arloko zuzenketa eta konpentsazioak. Administrazio horien jarduketak, bestalde, Arbitro Batzordearen arabera, administrazio eskudun berriak jatorria duen dataara atzeratu beharko ditu bere jarduerak, ondorioetarako", maiatzaren 23ko 12/2002 Legea aldatzen duen apirilaren 21eko 7/2014 Legea oinarritzat hartuta Ekonomia Itunaren 66. Hiru artikulura txertatzen den erregelamendu-aurreikuspena.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
95/2011	R14/2016	2016/06/20	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen helbide fiskala

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKI DU

1.- Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean jarritako gatazka ez onartzea, hura ez baita Arbitraje Batzordearen funtzionamendu-erregelamenduan eta Ekonomia Itunean xedatutakoari jarraiki planteatu.

2.- Horregatik guztiagatik, eta zalantzan jartzen duen eskumen-gatazka bakar bat ere modu baliotsuan planteatu ez denez, ENTITATEAK 2009ko abenduaren 18ra arte Bilbon aitortutako egoitzaren egiazkotasunaren lege-presuntzioa onartu beharko da, data horretan erabaki baitzen Madrilera lekualdatzea. Horrenbestez, eta Ekonomia Itunean xedatutakoari jarraiki, Bizkaiko Foru Aldundia izango da, hala badagokio, ENTITATEAK Bizkaiko Foru Ogasunean aurkeztutako 2002tik 2008ra bitarteko ekitaldietako sozietateen gaineko zergaren itzulketak egiaztatzeko eta gauzatzeko eskumena izango duen Administrazioa, 2009ko abenduaren 18an zerga-egoitza Madrilera aldatzea erabaki aurretik.

3.- Ebazpen hau Zerga Administrazioko Estatuko Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta ENTITATEARI jakinaraztea.